

FLORENTINO GOÑI, EZKERRA

-Zer da zuretako garapen jasangarria? Garapen eredu honen aldekoa al zara? Aroztegiako proiektu urbanistikoa garapen jasangarri eredu baten barnean sar daitekeela uste duzu?

Horrek erran nahi du oinarrizko gizarte, ekonomia eta ingurugiro zerbitzuak prestatu behar direla pertsonaren bizimoduaren maila hobetuz, baina agortu gabe natur inguruneak daukan gaitasuna eta ezta bere baitan dituen baliabideak ere. Era horretan, bihar-etzikoko belaunaldiek ez dute ondorengotzan jasoko planeta agortua, euren beharrezko eta nahikundeei aurre ezin izateko moduan; ez dugu guk gure arbasoengandik mundua heredatu, baizik eta maileguan edo prestatuta hartzen ari gara gure seme-alabentzako. Hau horrela izanik Aroztegiako proiektuko urbanizazioak topo egiten du jasangarritasunarekin.

-Baztango herritarrak herri galdeketa bidez proiektuaren aurka agertuko balira, erabaki hau babestu eta defendatuko al zenuke?

Dudarik ez izan baztandarren hitza errespetatuko genukeela.

-Zeintzuk dira Aroztegia proiektua egiteak dakartzan onurak eta kalteak?

Garbi utzi nahi dut golf zelaia eta hotela egitearen kontra ez gaudela, Alderantziz, ongi ikusten dugu. Baina zergatik aktibitate honek atxikita eraman behar ditu 200 bizitzatik goiti? Garbi daukagu proiektuaren esentzia ez dela golf zelaia, baizik eta negozio inmobiliarioa, eta lehena makilaje hutsa da. Beraz, proiektuak, gaur osatua dagoen eran, kalte ikaragarriak eraginen lituzke gure gizartean arlo guztietan

-Inguru horretan etxebizitza behar erreala zein den aztertu da? Etxeak egin ondotik, hutsik geratzeko arriskurik ez al dago?

Baztango EMOT-a landu dugularik bertan azaldu da 800 etxebizitzatik goiti hutsik daudela Baztanen. Datu hau esanguratsua dela uste dugu eta indarrean dugun hirigintza planarekin 1.000 etxebizitzatik goiti eraiki daitezke Baztanen. Ez al da nahikoa? Baztandarren interesak edo enpresa pribatu baten interesak defendatu behar ditugu? Gaiak ez du kolorerik!